

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI) 2004KO ABENDUA

Bidaiarien sarrerak % 8 eta gualdiak % 6 gehitu dira 2004ko abenduan

2004. urte osoan, sarrerak % 10 eta gualdiak % 11 gehiago izan dira, 2003. urtean baino.

Euskal AEko ostalaritza-establezimenduetan, 2004ko abenduan, bidaiarien sarrerak 115.769 izan dira, Eustatek landutako datuen arabera. Kopuru horien arabera, gehikuntza % 8koa izan da aurreko urteko hil beraren aldean; hau da, 9.000 sarrera gehiago izan dira. Bizkaian, bidaiarien sarrerek bilakaera positiboa izan dute, % 22 igo baitira; Gipuzkoan, aldiz, bere horretan jarraitu dute (% 0,0), eta Araban % 4 egin dute behera.

Estatuko bidaiarien sarrerak % 13 gehitu dira Euskal AE osoan, eta atzerriko bidaiarien sarrerek % 7 egin dute behera. Estatuko bidaiarien sarrerak igo egin dira Bizkaian (% 24) zein Gipuzkoan (% 9), baina atzerrikoen sarrerak Bizkaian baino ez dira gehitu (% 17), eta Araban eta Gipuzkoan jaitsi egin dira, % 14 eta % 24%, hurrenez hurren.

Estatuko bidaiariei dagokienez, igoera ia autonomia-erkidego guztietakoan artean gertatu da, batez ere Madriletik, Kataluniatik, Andaluziatik eta Gaztela eta Leondik datozenen artean, besteak beste. Valentziako Erkidegotik, Murtziatik, eta Ceuta eta Melillatik etorritakoak gutxiago izan dira. Atzerriko bidaiarien artean, Alemaniakoak, Frantziakoak, Portugalgoak eta AEB-Kanadetakoak gehitu egin dira, baina Italiakoak, Erresuma Batukoak eta Herbeheretakoak, batik bat, murriztu egin dira.

Gualdiak, 2004ko abenduan, 206.172 izan dira, aurreko urteko abenduan baino % 6 gehiago, hots, ia 13.000 gualdi gehiago. Lurraldeka, bidaiarien sarrerek izanikoaren antzeko bilakaera izan dute gualdiek; hartara, % 16 gehitu dira Bizkaian, Gipuzkoan bere horretan jarraitu dute (% 0,0), eta Araban jaitsi egin dira (% -3).

Batez besteko egonaldiaren iraupena murriztu egin da; hala, bada, aurreko urtean 1,81 egunekoa izan zen, eta 2004ko abenduan, 1,78 egunekoa, Euskal AE osoari dagokionez. Hala ere, indize horrek apur bat hobera egin du Araban eta Gipuzkoan, % 1 bietan. Bizkaian, baina, jaitsi egin da (% -5).

Euskal AE osoari begira, plazen eta gelen betetze-maila handitu egin da, Bizkaian izan diren emaitzei esker, Araban eta Gipuzkoan betetze-mailak behera egin baitu, bai plazetan bai geletan.

Ostalaritza-establezimenduen balantzea 2004. urtean: Batez besteko egonaldiaren zein plazen betetze-mailaren zifrek gora egin dute aurreko urtearen aldean.

2004. urteko balantzea Euskal AEko ostalaritza-establezimenduetan igoerekin itxi da, bidaiarien sarrerei (% 10) zein gaualdiari (% 11) dagokienez. Bi adierazle horien bilakaera positiboa Euskal AEko hiru lurraldeetan gertatu da, baina ez da hein berekoa izan hiruretan, Eustatek landutako datuen arabera.

Bidaiarien sarrerak 1.750.434 izan dira 2004. urtean, hau da, aurreko urtean baino 165.000 gehiago. Hirugarren urtez jarraian, beraz, milioi eta erdiko kopurua gainditu da Euskal AEko ostalaritza-establezimenduetan ostatu diren bisitariei dagokienez. Bidaiari-sarrerak % 19 gehitu dira Bizkaian, % 5 Gipuzkoan, eta % 4 Araban.

Gaualdiak, 2004. urtean, 3.289.658 izan dira, hots, aurreko urtean baino 326.000 gaualdi gehiago. Gaualdiak ere bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Bizkaian (% 19), Gipuzkoan (% 8) zein Araban (% 2).

Batez besteko egonaldiaren iraupena 1,87 egunekoa izan zen aurreko urtean, eta 2004an, ordea, 1,88 egunekoa. Plazen betetze-mailak bi ehuneko-puntutan egin du gora, Euskal AE osoa kontuan harturik; hala, 2003an % 44,2 izan zen, eta 2004an, oster, % 46,9. Indize hori hiru lurraldeetan hobetu da, baina ez neurri berean.

1. taula: Urteko emaitzak

	EUSKAL AE			ARABA/ALAVA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2.003	2.004	△ %	2.003	2.004	△ %	2.003	2.004	△ %	2.003	2.004	△ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK												
GAUALDIAK	2.963.193	3.289.658	11	484.942	493.110	2	1.174.865	1.392.439	19	1.303.386	1.404.109	8
BIDAIARIEN SARRERAK	1.585.221	1.750.434	10	277.127	288.945	4	623.887	739.685	19	684.207	721.804	5
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,87	1,88	1	1,75	1,71	-2	1,88	1,88	0	1,90	1,95	2
BETETZE-MAILA PLAZAKA	44,18	46,86	6	42,02	42,88	2	42,25	45,51	8	47,02	49,97	6

Iturria: EUSTAT

Landa-turismoa: Bidaiarien sarrerak gutxitu egin dira abenduan (% -8), baina gaualdiak gehitu egin dira (% 12).

Abenduan bidaiarien sarrerak 6.538 izan dira Euskal AEko landa-turismoko establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino % 8 gutxiago.

Euskal AEko landa-turismoko establezimenduetan egindako gaualdiak 19.319 izan dira abenduan, aurreko urteko hil berean baino % 12 gehiago. Urte arteko hazkunde-tasak positiboak izan dira Bizkaian (% 17), Gipuzkoan (% 10) zein Araban (% 9).

Euskal AE osoa kontuan harturik, bidaiari bakoitzaren batez besteko egonaldia asko handitu da, % 21, hain zuzen. Bestalde, plazen betetze-maila apur bat igo da (% 1), baina gelen betetze-mailak behera egin du (% -2).

Landa-turismoaren balantzea 2004. urtean: bidaiarien sarrerak % 4 eta gaualdiak % 16 gehitu dira.

Landa-turismoko establezimenduetan, Euskal AE osoan, bidaiarien sarrerak 88.076 izan dira 2004. urtean zehar, hots, aurreko urtean baino % 4 gehiago. Gaualdiak, bestalde, 261.906 izan ziren, 2003an baino % 16 gehiago, alegia.

Lurraldeka, guztietan ere bidaiarien sarrerak nahiz gaualdiak gehitu dira, baina ez neurri berean hiruretan.

Bidaiari bakoitzaren batez besteko egonaldia 2,66 egunekoa zen 2003an, eta 2004an, berriz, 2,97ra igo da. Betetze-mailak 2004. urtean %8 egin du gora, 2003ko mailaren aldean, eta hiru lurraldeetan izan da positiboa.

2. taula: Urteko emaitzak

	C. A DE EUSKADI			ARABA/ALAVA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2.003	2.004	△ %	2.002	2.003	△ %	2.002	2.003	△ %	2.002	2.003	△ %
NEKAZALTURISMOA												
GAUALDIAK	225.249	261.906	16	34.571	41.559	20	73.310	85.517	17	117.368	134.830	15
BIDAIARIEN SARRERAK	84.691	88.076	4	15.260	16.040	5	28.109	29.154	4	41.322	42.882	4
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,66	2,97	12	2,27	2,59	14	2,61	2,93	12	2,84	3,14	11
BETETZE-MAILA	27,03	29,15	8	21,42	21,89	2	27,67	30,87	12	28,84	31,26	8

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Nerea Linaza Diarce

Tel.: +34-945 017 533. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-Bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp

3. taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE						ARABA						BIZKAIA						GIPUZKOA					
	12/2004	%	12/2003	%	Δ%	12/2004	%	12/2003	%	Δ%	12/2004	%	12/2003	%	Δ%	12/2004	%	12/2003	%	Δ%				
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																								
GAUALDIAK	206.172	100	193.613	100	6	33.863	100	34.937	100	-3	93.866	100	80.589	100	16	78.443	100	78.087	100	0				
Estatukoak	164.350	80	146.589	76	12	29.483	87	29.665	85	-1	72.194	77	58.809	73	23	62.673	80	58.115	74	8				
Atzerrikoak	41.822	20	47.024	24	-11	4.380	13	5.272	15	-17	21.672	23	21.780	27	0	15.770	20	19.972	26	-21				
Hiriburua	134.663	65	124.024	64	9	26.004	77	27.014	77	-4	63.887	68	52.642	65	21	44.772	57	44.368	57	1				
Kostaldea	19.265	9	16.417	8	17	-	-	-	-	-	7.466	8	7.926	10	-6	11.799	15	8.491	11	39				
Barnealdea	52.244	25	53.172	27	-2	7.859	23	7.923	23	-1	22.513	24	20.021	25	12	21.872	28	25.228	32	-13				
BIDAIARIEN SARRERAK	115.769	100	107.025	100	8	19.937	100	20.804	100	-4	52.185	100	42.628	100	22	43.647	100	43.593	100	0				
Estatukoak	93.723	81	83.270	78	13	16.981	85	17.369	83	-2	41.677	80	33.609	79	24	35.065	80	32.292	74	9				
Atzerrikoak	22.046	19	23.755	22	-7	2.956	15	3.435	17	-14	10.508	20	9.019	21	17	8.582	20	11.301	26	-24				
Hiriburua	74.728	65	69.855	65	7	14.287	72	14.702	71	-3	34.874	67	28.396	67	23	25.567	59	26.757	61	-4				
Kostaldea	10.264	9	8.380	8	22	-	-	-	-	-	4.084	8	3.960	9	3	6.180	14	4.420	10	40				
Barnealdea	30.777	27	28.790	27	7	5.650	28	6.102	29	-7	13.227	25	10.272	24	29	11.900	27	12.416	28	-4				
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,78		1,81		-2	1,70		1,68		1	1,80		1,89		-5	1,80		1,79		1				
BETETZE-MAILA PLAZAKA	36,07		35,60		1	35,99		36,39		-1	35,31		33,12		7	37,06		38,19		-3				
Hiriburua	37,98		37,36		2	40,06		40,99		-2	37,15		33,72		10	38,06		40,34		-6				
Kostaldea	40,02		30,12		33	-		-		-	30,29		27,23		11	50,21		33,44		50				
Barnealdea	30,93		33,80		-8	26,94		26,32		2	32,54		34,44		-6	31,01		36,51		-15				
BETETZE-MAILA GELAKA	42,80		41,85		2	42,63		43,82		-3	42,64		39,76		7	43,07		43,57		-1				
Hiriburua	44,66		42,83		4	47,96		49,24		-3	44,91		39,67		13	42,35		43,57		-3				
Kostaldea	45,59		36,81		24	-		-		-	36,14		33,50		8	55,15		40,63		36				
Barnealdea	37,66		41,32		-9	28,23		28,50		-1	39,21		43,11		-9	39,99		44,62		-10				
NEKAZALTURISMOA																								
GAUALDIAK	19.319	100	17.178	100	12	3.744	100	3.432	100	9	6.697	100	5.707	100	17	8.878	100	8.039	100	10				
Estatukoak	17.860	92	15.674	91	14	3.702	99	2.918	85	27	6.149	92	5.111	90	20	8.009	90	7.645	95	5				
Atzerrikoak	1.459	8	1.504	9	-3	42	1	514	15	-92	548	8	596	10	-8	869	10	394	5	121				
BIDAIARIEN SARRERAK	6.538	100	7.073	100	-8	1.376	100	1.328	100	4	2.153	100	2.451	100	-12	3.009	100	3.294	100	-9				
Estatukoak	6.150	94	6.774	96	-9	1.334	97	1.258	95	6	2.051	95	2.378	97	-14	2.765	92	3.138	95	-12				
Atzerrikoak	388	6	299	4	30	42	3	70	5	-40	102	5	73	3	40	244	8	156	5	56				
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,95		2,43		21	2,72		2,58		5	3,11		2,33		33	2,95		2,44		21				
BETETZE-MAILA PLAZAKA	24,25		24,00		1	22,45		22,83		-2	26,84		25,50		5	23,34		23,53		-1				
BETETZE-MAILA GELAKA	25,76		26,21		-2	23,59		26,39		-11	29,07		27,38		6	24,44		25,38		-4				

Iturria: EUSTAT